

# 2393.etik ikusita, nola ez genuen eragotzi klimaren zoratzeara

Nola interpretatuko ote da 2393. urtean gaur hemen bizi dugun XXI. mende hau? *The Collapse of Western Civilization* fikzio-zientziako liburuan Naomi Oreskes eta Erik Conway historialariek kontatu dute nola gertatu zen –nola gertatzen ari den?– Mendebaldeko kontsumo zibilizazioa hondamendira eramanezuen kolapsoa.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

BARRUAN MEZUA DARAMAN BOTILA basamortuan galduta, horra doi-doi 100 orritan mezu kezagarria zabal-tzen duen liburuaren azala: *The Collapse of Western Civilization: A View from the Future* (Mendebaldeko Zibilizazioaren kolapsoa, etorkizunetik ikusita). Harvard eta Kaliforniako unibertsitateetan historia irakasten duten Naomi Oreskes eta Erik Conway plazaratu berri dute. 2010ean argitaratu zuten *Merchants of Doubt: How A Handful of Scientists Obscured the Truth on Issues from Tobacco Smoke to Global Warming* (Zalantza saltzaileak: Nola zientzialari batzuek lortu zuten egia iluntzea tabakoaren kalteetatik hasita beroketa globaleraino).

Oraingo liburuan jarri dira 2393. urtean bizi den historialari baten larruazalean. Txinako Bigarren Herri Errepublikan bizi da, eta puntu honekin hasieratik markatzen dute beren hipotesiaren ezagarrietako bat: beste ezein herrialdek baino aukera handiagoz Txinak iraun lezakeela XXI. mendean planetari egokituko zaizkion kalamitateen artean pasa ostean.

Etorkizunetik begiratuta –fikzioa delako ez bedi gehiegi lasaitu irakurlea– 2023. urtean nozitu zuen Lurra sekulako astinaldia, “urte osoan uda” izan baitzen. Idazkian diotenez, “500.000 pertsona hil

zitueroaldia handi hark, 500.000 milioi dolarreko kalteak eragin sute, uzta galtze eta azienden eta etxeeko animalien hiltzearekin. Etxeetako katu eta zakurren galerak [jakien urritasunagatik, antza] bereziki asaldu zituen Mendebalde aberatseko jendeak, baina 2023an berezia gertatu zen egoera hura geroztik normaltasun berria bilakatu zen”.

Geroztik, XXI. osoan zehar mamitu zen, inork hori saihestea lortu gabetik, zientzialariek eta beste askok aurretik iragarritako hondamendia: Afrika eta Ozeaniako populazio osoak desagertu ziren, klimaren aldaketak ekarri zituen mundu osoan zehar idortek, janaririk eza, itsasoa lehorrean sartzea, liskarrak, gerra zibilak, 1.000 milioi jende baino gehiagoren migrazioa eta lege martzialak erabiltzen zituzten sistema politikoen nagusitzea.

Fikzio-zientziakoa den arren, liburuan 2013a baino lehenagokoaz idatzitako guztia da benetan gertatua. 2013tik aurrera asmatu dutena, diote historialariek, idatzi dute oinarrituta dagoeneko frogatuta dagoen ebidentzia zientifikoan. Urakanak gero eta bortitzagoak izango direla jadanik badakigu. Itsas maila igotzeaz eta Artikoaren mendebaldeko izotz geruza galtzeaz frogaz zientifiko oso sendoak daukagu jadanik. Klimaren berotzeak

Irudi txikian erreportajearen aipatzen den liburua, Naomi Oreskes eta Erik Conway plazaratu berria. Handia World Resources Institute erakundeak erakusten du bere webgunearen azalean: tifoia eraginiko uholdeak itotako hiri handi batean herritar batek bere alaba eta etxetik ateratako hainbat ondasun daramatza sasi-txalupan jarrita. Historiagileok salatzen dute zientzialariek epelegi jokatzeko dutela jadanik frogatuz eman daitekeen klimaren zoratzearen aurrean: “Arrazoi mordoak daukagu esateko klimaren aldaketarekin lotuta daudela urakanak eta mundua berotzen ari dela, urakanak gero eta ugariagoak eta bortitzagoak izango direla. Baina zientzialarien komunitateak uzkur jokatzeko du, aski ebidentzia ez omen daukalakoan, %95eko konfiantza behar omen dute. (...) Beren buruak huts egiteko arriskutik babestuz, gu uzten gaituzte ezer ez egitea den errore handiagoren aurrean”.

lehortek eta janarien urritzea dakartzala dakigun moduan.

“Mendebaldeko zibilizazioko jendeak –dio 2393ko ustezko historialariak– bazekien zer ari zen gertatzen baina ez zen gai izan hura gelditzeko. Gertakizun haietan nabarmenena da hain zuzen zenbat informazio zeukan jende hark eta zer nolako ezintasuna zeukaten zekitena ekintza bihurtzeko. Ezagutza ez zen bilakatu ahalmen”.

## Erregimen bortitzen aroa

Ingurumen aferez ari den *Living on Earth* (Lurrean Bizi) gunean elkarriketatuta dute bi idazleetatik Naomi Oreskes. Kazetariari azaldu dionez, bera bezala Erik Conway kezkatuta daude “jendea ez delako ohartzen klimaren aldaketak dakarrenaz, askok uste dute Artikoko hartz zurien kontua dela. Guk azaldu nahi diegu gu guztioi eragiten digula, gure bizimoduari baina baita gure instituzioei ere, erakunde ekonomiko, politiko eta sozialei”.

Aurreko *Merchants of Doubt* liburuan, historialariok azaldu zuten nola korporazioek antolatuta duten klimaren aldaketari buruzko zalantza zabaltzeko borroka, beldur zirelako egia zientifikoak auzitan jarri zitzaizkela demokrazia liberala, enpresa librea, eta beste. Oraingoan nabarmendu nahi dute historiaren



ironia, nola egia ukatzearen poderioz munduan eragin zuten kataklismoak ekarri zuen kapitalismo liberalaren suntsiketa.

Txina aipatzen dute XXI. mendegatazkatsua ondoen gainditu zuen herrialdeztat, bi arrazoirengatik. Batetik, historiari luzeena daukan herrialdea baldin bada, bizirauteko probabilitate estatistiko handienak berak dauzka. Bestetik, aitortuz Txina urteotan aritu dela beste inor baino astoago ingurumenaren erabilera, Txinako sistemak erakutsi du ahalmena daukala justu kontrako norabidean ere jauzi handiak egiteko, diziplina eta antolaketa handiz.

Txina ez bezala, paradoxa iruditu arren, XXI. mendean pikutara joan ziren Mendebaldeko zibilizazioak

gozatu zituen askatasun indibidualak, klimaren aldaketak eragindako larrialdiaren eraginez: “Ororen gainetik norbanakoaren askatasuna bermatu behar omen zuen neoliberalismoak ekarritako egoera latz hark berak eragin zuen gobernuen esku hartze izugarri handia”.

Baina zergatik ez ziren Mendebaldeko jendarteak gai izan XXI.ean egin beharreko trantsizioa burutzeko? Alde batetik, diote Oreskes eta Conwayk, *merkatuko fundamentalismoa* deitu dutenagatik: “Klimaren aldaketa benetan gertatzen ari dela ukatzen dutenetako askok halako fede batez sinesten dute merkatuak egingo duela zerbait magiazkoa bezala eta arazo hau konponduko duela merkatuaren

esku ikusezinak mirakuluz bezala, pieza bakoitza bere lekura eramanez miraritzko soluzio bat aurkituko duela. (...) Aldiz, Munduko Bankuaren ekonomialari buru izandako Nick Sternek aitortua du klimaren aldaketa dela sekula ikusi den merkatuaren huts egite [market failure] handiena”.


300 urte beranduagoko begietatik hau guztia gertatu zen XXI. mendean boterea zegoelako erregai fosiletatik aberasten ziren indarren eskuetan, historialariok “the carbon combustion complex” deitu duten indar multzoak bahituta. Sare horrek biltzen zituen erregai fosilen ekoizleak, erregaiok merkatuzten zituzten konpaniak (petrolio ateratzen dutenak, horientzako ari diren erakuntzako eta bestelako korporazioak, petrokimikakoak...), erregai fosil merkeetan oinarritutako industriak (automobilak eta hegazkingintza), gehi guztien kapital beharrak asezten zituzten bankuak.

XXI. mendeko hondamendi klimatikoaren beste erantzule nagusiak, Oreskes eta Conwayrentzako, zientzialariak izan ziren. Bakoitza bere gai hiper-berezituan murgildurik, ikuspegi orokor bat edukitzeko miopegi, edozein ondorio-tara iristeko %95eko segurtasuna edukitzeko behar horrekin... “Zientzialariak oso-oso beldurti jokatu dute ‘otsoa datorrela!’ oihukatze orduan eta ondorioa izan da denok egon garela bibolina jotzen Erroma kiskaltzen ari zen bitartean, edo zehazkiago esanda, Groenlandia urtzen zen bitartean”. ■



ZINKUNEGI  
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624  
info@zinkunegioptika.com  
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua  
Kalitatea  
Garantia

